

Bodegas Campillo 52. Heineken Jazzaldiko babesle zerrendara gehitu da eta gunea izango du Victoria Eugenia Antzokian

Bodegas Campillo 52. Heineken Jazzaldiko babesle taldera gehitu da ekitaldi andanarekin: kontzertuak, ardo dastaketak eta topaketak artistekin. Ekitaldiok Bodegas Campillo Gunean izango dira, Victoria Eugenia Antzokiko bi agertokietan: Areto Nagusian eta Club Aretoan.

Jazza Campilloarekin

Kontzertu eta ardo dastaketa egitaraua

Victoria Eugenia Antzokia – Bodegas Campillo Gunea

Uztailak 21

Victoria Eugenia Club – Bodegas Campillo Gunea

18:00. Doan. Aurrez izena eman behar da bodegascampillo.com webgunean

Bodegas Campilloko ardoen dastaketa

19:00. Doan. Gonbidapenak leihatilan eskuratu ahal izango dira 17:00etatik aurrera

Descarga Libre: *Dizzy Gillespie-ri omenaldia*

Uztailak 22

Victoria Eugenia Club – Bodegas Campillo Gunea

18:00. Doan. Aurrez izena eman behar da bodegascampillo.com webgunean

Bodegas Campilloko ardoen dastaketa

19:00. Doan. Gonbidapenak leihatilan eskuratu ahal izango dira
17:00etatik aurrera

Performance: *Living Colors*

Victoria Eugenia Antzokia – Bodegas Campillo Gunea. 24:00. 20€

Chano Domínguez-Stefano Bollani

Uztailak 23

Victoria Eugenia Club – Bodegas Campillo Gunea

18:00. Doan. Aurrez izena eman behar da bodegascampillo.com
webgunean

Bodegas Campilloko ardoen dastaketa

19:00. Doan. Gonbidapenak leihatilan eskuratu ahal izango dira
17:00etatik aurrera

Kevin Mahogany + Hervé Sellin Trio

Victoria Eugenia Antzokia – Bodegas Campillo Gunea. 24:00. 20€

Atmosphères

Uztailak 24

Victoria Eugenia Club – Bodegas Campillo Gunea

18:00. Doan. Aurrez izena eman behar da bodegascampillo.com
webgunean

Bodegas Campilloko ardoen dastaketa

19:00. Doan. Gonbidapenak leihatilan eskuratu ahal izango dira
17:00etatik aurrera

Donny McCaslin Quartet

Victoria Eugenia Antzokia – Bodegas Campillo Gunea. 24:00. 12€

ArFolia Libra

Uztailak 25

Victoria Eugenia Club – Bodegas Campillo Gunea

18:00. Doan. Aurrez izena eman behar da bodegascampillo.com webgunean

Bodegas Campilloko ardoen dastaketa

19:00. Doan. Gonbidapenak leihatilan eskuratu ahal izango dira
17:00etatik aurrera

Le Workshop de Lyon

Victoria Eugenia Antzokia – Bodegas Campillo Gunea. 23:00. 15€

Chicuelo-Mezquida

[Egunero, 20:00etan, kontzertuaren ondoren](#)

Musikariekin topaketa eta Bodegas Campilloko ardoen dastaketa

Zurriola hondartza

Aire zabaleko Campillo Terraza + food truck

+info eta izen-emateak: www.bodegascampillo.com

+info: www.heinekenjazzaldia.eus

Taldeak

Uztailak 21

Descarga Libre: *Dizzy Gillespie-ri omenaldia*

Mikel Makala (erritmo-kutxa, sampler-a), Jimmy Bidaurreta (teklatuak), Denis Barzaga (perkusioa), J. M. Dorronsoro (tronpeta)

Unexpected Tapas (2011) albuma publikatu eta urte batzuetara, Mikel Makala DJ eta agitatzaile musikal euskaldun-alemaniarrek eta Jimmy Bidaurreta Gasteiz Big Band-eko zuzendari eta ekoizleak indarrak batu dituzte proiektu berri bat sortzeko: Descarga Libre. Latin, jazz, funk eta deskarga soinuen arteko nahasketa berreskuratu eta Fania bezalako zigilu ezagunen Nuyorican salsara hurbilduko dira, dantzarako musikaren tendentzia berriekin bat eginez. Zuzenekoetan lagun izango dituzte: Denis Barzaga, Donostian bizi den perkusionista kubatarra, eta J. M. "Dizzy Do" Dorronsoro, tronpetista donostiarra, azken hamarraldietako jazz eszena euskaldunaren ohiko musikaria.

Uztailak 22

Performance: *Living Colors*

Stefan Winter soinu-artistak eta Noriko Kura artista plastikoak exekutatzeko duten performance-a da *Living Colors*; Fumio Yasuda pianistaren eta Joachim Badenhorst klarinetista eta saxofonistaren zuzeneko musikarekin osatutakoa. Gorputz-adierazpen, soinu eta kolore erakustaldia da. Winter bereziki ezaguna da musika-ekoizle gisa. Winter & Winter zigiluarekin beti editatu ditu dotoretasunez maila altuko obrak, baina hedapen gutxikoak zirkuitu komertzialetatik kanpo. *Poem of a Cell*-en egilea eta zuzendaria da. Ikuskizun horrek inauguratuko du 52. Heineken Jazzaldia, eta bertan parte hartuko du Noriko Kurak ere.

Chano Domínguez-Stefano Bollani

Chano Domínguez (pianoa), Stefano Bollani (pianoa)

Adimen eta sentiberatasun musikal txundigarriko piano bikotea: Chano Domínguez cadiztarra eta Stefano Bollani italiarra. Chano Domínguez jazz-flamenkoaren –edo flamenko-jazzaren– ordezkari printzipala da. Maisutasun berberarekin jo izan du Enrique Morente, Paco de Lucía edota Martiriorekin, nola Herbie Hancock, Jack DeJohnette edota Wynton Marsalisekin. Stefano Bollani italiar jazzeko erreferentzia nagusietako bat da, bere bide-erakusle Enrico Rava-rekin batera, zeinarekin hamahiru disko grabatu baititu. Pianista klasiko gisa ere nabarmendu da.

Uztailak 23

Kevin Mahogany + Hervé Sellin Trio

Kevin Mahogany (ahotsa), Hervé Sellin (pianoa), Bruno Rousselet (kontrabaxua), Philippe Soirat (bateria)

Baritono-ahots bikain baten jabe, Kevin Mahogany jazzeko abeslari errespetatuenetako bat bilakatu da, gai baita zeinahi motatako materiala maisutasun paregabez interpretatzeko: jazz modernoa, bluesa, baladak edo swing-aren aroko klasikoak. Mahoganyk, bere izeneko diskoak grabatzeaz gainera, gonbidatu gisa hartu du parte hainbat eta hainbat grabazio-saiotan, Ray Brown edo Elvin Jones bezalako musikariek.

Atmosphères

Tigran Hamasyan (pianoa), Arve Henriksen (tronpeta), Eivind Aarset (gitarra), Jan Bang (sanplerrak, live sampling)

Tigran Hamasyan armeniar pianista buru duen talde honetan, norvegiar jazzeko hiru izen gailen ere badatozkigu: Arve Henriksen, Jan Bang eta Eivind Aarset. Hamasyan-ek eta Bang-ek elkarrekin jo zuten Kristiansand-eko PUNKT jaialdian, eta han sortu zen hiru egunetan album bikoitz bat grabatzeko burutazioa, ECM etxearen disko mitikoenetako tradizio inprobisatzaileari eutsirik. Armeniarrak antzinako doinu tradizionalak

dakartza eta norvegiarrek musika elektronikoan eta atmosfera etereoetan duten maisutasuna jartzen dute.

Uztailak 24

Donny McCaslin Quartet

Donny McCaslin (saxo tenorra), Jason Lindner (teklatuak), Jonathan Maron (baxua), Nate Wood (bateria)

Ikus-entzule gehienek David Bowie hilezkorrekin egindako lankidetzagatik identifikatuko dute jazzeko izen berri handienetakoa dugun saxofoi-jotzaile hau. Bere azken diskoa grabatzeko, *Blackstar*, ingeles abeslari mitikoak Donny McCaslin-en laukotearekin lan egitea erabaki zuen, Maria Schneider konpositore eta jazzeko orkestrazuzendariaren gomendioei kasu eginik, zeinak 2014an lan egin baitzuen Bowierekin, *Sue (Or in a Season of Crime)* singlean. McCaslin-ek esperientzia aipagarria metatu du jazzaren munduan, Steps Ahead, Gil Evans, Danilo Pérez, Dave Douglas eta aipatutako Schneider-ekin egin dituen lankidetzen bitartez, eta jazzeko bakarlari onenaren sarirako izendatu zuten 2004ko Grammyetan.

ArFolia Libra

Jean Aussanaire (Arfi) (saxoak), Jean-Paul Autin (Arfi) (saxoak, klarinete baxua), Xavier Garcia (Arfi) (sanplerrak, laptopa), Clément Gibert (Arfi) (saxoak, klarineta), Lucile Perret (Aperto Libro) (moko-xirula, antzinako tronboia, danborra, ahotsa), Anaïs Ramage (Aperto Libro) (moko-xirula, klarineta, bonbarda), Matthieu Bertaud (Aperto Libro) (moko-xirula, zeharkako xirula, antzinako tronboia, oboea), Tiago Simas Freire (Aperto Libro) (moko-xirula, antzinako tronboia, gaita, Errenazimentuko korneta, danborra, ahotsa)

Arfi eta Aperto Libro kolektiboetako launa musikariek euren talentuak eta musika-jakinduria batu dituzte ArFolia Libra taldea osatzeko. Arfiko musikariek sekulako inprobisazio-gaitasuna dute; eta Aperto Librokoak adituak dira musika errenazentistan, eta ondo kontrolatzen dituzte

antzinako haize-instrumentuak. Elkarrekin kontzertu bakana eskaintzen dute, eta liluraturik utziko dituzte musika onaren zaleak.

Uztailak 25

Le Workshop de Lyon

Jean Aussanaire (saxo altua, saxo sopranoa), Jean-Paul Autin (saxo altua, saxo sopraninoa, klarinete baxua), Jean Bolcato (baxua, ahotsa), Cristian Rollet (bateria, perkusioa). Musikari gonbidatua: Carlos "Zingaro" (biolina) Talde mitikoa da Lyongo Workshop-a. Europako jazz garaikide talderik interesgarriena ez ezik, bizitza luzeena duenetakoa da, bira honekin 50. urteurrena ospatzen du. Arfi kolektiboaren parte da (Folklore Imajinarioa Bilatzeko Elkartea). Arfitik hirukote bat edota orkestra handi bat sor daiteke, geometria aldakorreko taldeak alegia, eta horietan musikariek euren onena ematen dute. Aurtengo Heineken Jazzaldian bi formazioarekin gozatu ahal izango dugu: ArFolia Libra eta Le Workshop de Lyon.

Chicuelo-Mezquida

Marco Mezquida (pianoa), Juan Gómez "Chicuelo" (gitarra flamenkoa), Paco de Mode (perkusioa)

Iaz, 51. Heineken Jazzaldian, 12 Point Jaialdian parte hartu zuen Marco Mezquida Mallorcako pianistak, Europako Jazz talentu gazteek osatutako taldeen bilkuran. Bueltan dator Chicuelo gitarrista flamenkoarekin batera eta proiektu liluragarri batekin. Nazioartean, dagoeneko, kultu-musikaria da Mezquida. Chicuelo, berriz, egungo flamenkoaren gitarrista entzutetsuenetakoa da, Miguel Povedaren, Duquenderen, El Cigalaren, Carmen Linaresen edota José Mercéren kidea.